

Euskal AEko esportazioek % 20ko hazkuntza gainditu dute, 2023ko urtarrilean

Euskal AEtik Errusiara eginiko esportazio kopuruak % 79 egin du behera, eta inportazio kopurua ere % 42,5 jaitsi da

Atzerrira eginiko Euskal AEko ondasunen **esportazioek** (2.720,4 milioi euro), 2023ko urtarrilean, aurreko urteko hil beraren aldean, % 21,4ko igoera izan dute, produktu energetikoen % 0,4ko eta ez-energetikoen % 23,1eko hazkuntzarekin, Eustaten datuen arabera.

Inportazioen kasuan (2.374,4 milioi), % 18,0ko igoera izan da. Inportazio ez-energetikoen % 11,2 egin dute gora, eta energetikoen, % 42,1.

2023ko urtarrilean, merkataritza-saldo positiboa izan da (346 milioi) eta estaldura-tasa % 114,6koa.

Euskal AEko ondasunen kanpo-merkataritzaren bilakaera. Milaka eurotan. Urtarrila 2023

	ESPORTAZIOAK			INPORTAZIOAK		
	Urtarrila			Urtarrila		
	2022	2023	Gehikuntza (%)	2022	2023	Gehikuntza (%)
EUSKAL AE						
HILABETE, GUZTIRA	2.241.139	2.720.420	21,4	2.012.752	2.374.436	18,0
ENERGIAZKO GAIAK	166.842	167.429	0,4	442.489	628.931	42,1
ENERGIAZKOAK EZ DIREN GAIAK	2.074.297	2.552.992	23,1	1.570.263	1.745.505	11,2
URTEKO METATUA	2.241.139	2.720.420	21,4	2.012.752	2.374.436	18,0
ENERGIAZKO GAIAK	166.842	167.429	0,4	442.489	628.931	42,1
ENERGIAZKOAK EZ DIREN GAIAK	2.074.297	2.552.992	23,1	1.570.263	1.745.505	11,2
ARABA / ÁLAVA						
HILABETE, GUZTIRA	736.213	929.035	26,2	440.155	450.164	2,3
URTEKO METATUA	736.213	929.035	26,2	440.155	450.164	2,3
BIZKAIA						
HILABETE, GUZTIRA	900.339	1.041.069	15,6	1.167.862	1.486.447	27,3
URTEKO METATUA	900.339	1.041.069	15,6	1.167.862	1.486.447	27,3
GIPUZKOA						
HILABETE, GUZTIRA	604.588	750.316	24,1	404.736	437.824	8,2
URTEKO METATUA	604.588	750.316	24,1	404.736	437.824	8,2

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Data 2023ko Martxoaren 16a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Euskal AEko hiru lurralde historikoen hazkuntza-tasa positiboak izan dituzte esportazioetan, eta igoera % 26,2koa izan da Araban, % 15,6koa Bizkaian eta % 24,1ekoa Gipuzkoan. Bizkaiko esportazio ez-energetikoen % 19,7 egin dute gora; Arabakoek, % 25,8, eta Gipuzkoakoek, % 23,8. Esportazio energetikoen, Bizkaiaren kasuan, % 2,6 egin dute behera.

Araban, esportazioak honako hauetan kontzentratu dira hilabete honetan: “Garraio-materiala” (guztizkoaren % 59,3), % 19,6ko igoerarekin (550,6 milioi esportatu, guztira), “Metalak eta haren manufakturak” (urte arteko % 42,5eko igoera) eta “Materiala, makinak eta aparatu elektrikoak” (% 36,0ko igoera).

Gipuzkoan, gora egin dute hiru arantzel-atal nagusien salmentek: “Materiala, makinak eta aparatu elektrikoak” (% 11,3), “Metalak eta haien manufakturak” (% 10,4) eta “Garraio-materiala” (% 55,7). Nabarmenezkoa da lurralde horretan “Landareen erreinuko produktuek” izan duten igoera handia; izan ere, 27,6 milioi esportatu izan dituzte.

Bizkaiaren kasuan, gora egin dute, era berean, honako hauen esportazioek: “Garraio-materiala” (% 26,1), “Materiala, makinak eta aparatu elektrikoak” (% 25,5) eta “Koipeak eta olioak” (% 61,8) eta “Landareen erreinuko produktuak” (29,4 milioi esportatu).

Jatorri-helmugako herrialdeak, 2023ko urtarrila

2023ko urtarrilean, bost herrialdek (Alemania, Frantzia, Estatu Batuak, Erresuma Batua eta Herbehereak) eratu dute Euskal AERen bezero nagusien taldea; esportatutako guztizkoaren % 52,7 hartzen dute (1.434 milioi). Haietako hiru EB-27koak dira; entitate horri % 66,6 dagokio.

Alemaniarra eginiko esportazioek % 16,4 egin dute gora; Frantziara eginikoek, % 30,1; Estatu Batuetara eginikoek, % 13,5; Erresuma Batuarra eginikoek, % 32,2, eta Herbehereetara eginikoek, % 7,5. Italiara, Belgikara eta Portugalera eginikoak ere areagotu dira (% 21,4, % 11,5 eta % 21,8, hurrenez hurren). Europatik kanpora, Marokokoak eta Mexikokoak handitu dira (% 125,6 eta % 6,8, hurrenez hurren) eta behera egin dute, nabarmen, Txinakoek (–% 40,9) eta Errusiakoek (–% 79,4).

Gure inportazioen % 42,8 EB-27tik etorri dira. Europako herrialde garrantzitsuenen artean, Alemaniatik inportatutakoa nabarmentzen da (292,3 milioi eta % 2,1eko urte arteko hazkuntza); Irlandakoak eta Portugalekoak ere areagotu dira (bietan urte arteko % 58,5eko hazkuntza). Erresuma Batuan, % 70,7ko atzerapena egon da.

Munduko gainerako herrialdeak aztertuta ikusten da sendotu egin direla honako herrialde hauetan jatorria duten inportazioak: Norvegia (121,7 milioi inportatu), Estatu Batuak (% 132,4 eta 237,8 milioi), Mexiko (% 301,1 eta 189,2 milioi) eta Txina (% 55,9 eta 284,6 milioi).

Errusiaren kasuan, % 42,5eko atzerakada egon da; 2022ko urtarrilean, 136,7 milioi izatetik 2023ko hil berean 78,6 milioi izatera igaro da; haietatik, 70,5 milioi “energetikoak” izan dira, zehazki, “Petrolioaren olio finduenak” (sufre gutxiko gasolioak).

Gure inportazio energetikoak honela banatu dira: 354 milioi Amerikakoak (% 56,3) eta, haietatik, 182 milioi Mexikokoak, 122 milioi Estatu Batuetakoak eta 50 Brasilekoak; 190 milioi Europakoak (% 30,2) eta, haietatik, 112 Norvegiakoak, 70 milioi Errusiakoak, 3 Poloniakoak eta 2 Herbehereetakoak; 48 milioi Afrikakoak (% 7,7), osorik Libiakoak, eta, azkenik, Asiatik ia ez da ezer inportatu.

Merkaturatutako produktuak, 2023ko urtarrila

Xehetasunak ikusteko, 2023ko urtarrilean ikusten da hamar **arantzel-partida** nagusiek esportazioen % 43,4 kontzentratu dutela; baterako balioa 1.181,5 milioi eurokoa izan da.

Talde horren barruan, esanguratsuak dira honako partida hauen igoera-tasak, besteak beste: “10 pertsona baino gutxiagoko turismoak” (% 34,4 eta 308 milioi esportatu), “Kautxuzko pneumatiko berriak” (% 22,1 eta 121 milioi esportatu), “Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak” (% 146,9 eta 64 milioi esportatu).

Espektroa 25 partida garrantzitsuenetara zabaltzen badugu, nabarmentzekoa da honako hauen igoera handia: “Arrain izoztua xerratu gabe” (28 milioi esportatu), “Biodiesela eta bere nahasketak” (24 milioi esportatu) eta “Automotorrak, trenbideetarako eta tranbia autopropulsatuetaarako” (36 milioi).

Euskal AEko hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Urtarrila 2023

	2022	2023	2023 (%)	2023/2022 (%)
ESPORTAZIOAK GUZTIRA	2.241.139	2.720.420	100,0	21,4
10 pertsona baino guxiagoko turismoak	228.941	307.700	11,3	34,4
Zamak garraiatzeko ibilgailu automobilak	175.446	194.685	7,2	11,0
Automobilentzako zati eta osagarriak	162.790	171.917	6,3	5,6
Petrolioaren olio finduak	152.746	152.733	5,6	0,0
Kautxuzko pneumatiko berriak	99.325	121.319	4,5	22,1
Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak	25.830	63.786	2,3	146,9
Erabilera tekniko industrialetarako koipeak eta olioak (animalia- edo landare-)	35.888	51.503	1,9	43,5
Burdina edo altzairuzko gainerako manufakturrak	20.715	40.298	1,5	94,5
Altzairu herdoilgaitzeko barra eta profilak	26.234	38.806	1,4	47,9
Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak	55.095	38.772	1,4	-29,6
Txorrotetarako artikulak, balbulak eta antzekoak tutuetarako	46.143	38.199	1,4	-17,2
Gainerako altzairu aleatuen barrak eta profilak eta zulatzeko barra hutsak	23.003	36.771	1,4	59,9
Automotorrak, trenbideetarako eta tranbia autopropulsatuetaarako	0	36.263	1,3	-
Arrain izoztua xerratu gabe	118	28.061	1,0	23.605,6
Burdinako edo altzairuko beste tutu batzuk eta profil hutsak	26.767	27.035	1,0	1,0
Aduana-tarifen berariaz jasota ez dauden merkantziak	23.654	26.862	1,0	13,6
Transformadore elektrikoak, bihurtzaile estatikoak eta erreaktantzia-bobina	21.347	26.860	1,0	25,8
Galdaketa, burdina edo altzairuzko beste manufaktura moldeatu batzuk	29.740	24.034	0,9	-19,2
Biodiesela eta bere nahasketak, petrolio edo mineral bituminoso oliorik gabe edo pisanu % 70etik beherako edukierekin	0	23.886	0,9	-
0,2 mm baino gehiagoko lodiera duten aluminiozko xafiak eta tirak	41.054	22.536	0,8	-45,1
Xafien bidez eraikitutako, barrak, profilak, tutuak eta fundicio-eta, burdinako edo altzairuko antzeko	16.327	21.754	0,8	33,2
Igogailuak, eskailera mekanikoak, garraiagailuak, etab.	6.732	21.644	0,8	221,5
Transmisio-ardatzak, kojineak, engranajeak, enbrageak, etab.	17.892	20.055	0,7	12,1
Hariak, isolatutako eroale elektrikoak kableak eta zuntz optikoko kableak	20.298	19.861	0,7	-2,2
Turborreaktoreak, turbopropulsatzaileak eta gainerako gas-turbinak, bere piezak eta osagaiak barne	14.499	18.874	0,7	30,2

(p)Behinbehineko datuak

Data 2023ko Martxoaren 16a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Inportazioen kasuan, arantzel-partidetan, garrantzitsuenak, “Petrolioaren edo mineral bituminosoaren olio gordinak” (guztizkoaren % 18,1) partidak, % 31,5eko hazkuntza izan du, 2022ko hil berean baino 102,7 milioi gehiago, 429,2 milioiko guztizko erosketetan.

Joera positiboa izan dute, era berean, honako partida hauek: “Petrolio-gasa eta gainerako hidrokarburo gaseosoak” (% 185,5 eta aurreko urteko hil berean baino 79,4 milioi gehiago; guztira, 122,2 milioi), “Petrolioaren olio finduak” (% 18,2; haietatik, 73,7 milioi inportatu dira), “Soja-babak, baita hautsiak ere” (% 173,4 eta 61,8 milioi), “Metagailu elektrikoak eta haien zatiak” (% 128,7 eta 34,4 milioi) eta “Pertsonak edo salgaiak garraiatzeko itsasontziak” (112,6 milioi inportatu).

ARABA. Esportazioak 2023ko urtarrilean

Araban esportazioek % 26,2 egin dute gora, hil horretan honako hauek izan duten igoera handiaren ondorioz: “10 pertsona baino gutxiagoko turismoak” (% 34,6 egin dute gora; 305,1 milioi esportatu, guztira), “Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak” (% 219,8 eta 57,1 milioi esportatu), “Salgaiak garraiatzeko ibilgailu automobilak” (% 10,9) eta “Kautxuzko pneumatiko berriak” (% 39,6).

Arabako hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Urtarrila 2023

	2022	2023	2023 (%)	2023/2022 (%)
ESPORTAZIOAK GUZTIRA	736.213	929.035	100,0	26,2
10 pertsona baino gutxiagoko turismoak	226.661	305.145	32,8	34,6
Zamak garraiatzeko ibilgailu automobilak	175.274	194.365	20,9	10,9
Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak	17.843	57.054	6,1	219,8
Kautxuzko pneumatiko berriak	36.825	51.389	5,5	39,6
Automobilentzako zati eta osagarriak	49.269	31.314	3,4	-36,4
Burdinako edo altzairuko beste tutu batzuk eta profil hutsak	19.161	18.125	2,0	-5,4
Ardoa, mahats freskoarena	15.056	15.297	1,6	1,6
Kobrezko zakarrak eta hondakinak	10.848	10.355	1,1	-4,6
Metal arruntezko ontzietarako tapoiak, tapak eta beste osagarri batzuk	6.925	10.200	1,1	47,3
Motorra duten edo ez duten aireontzien zatiak, tripulatuak izan edo ez, eta satellite eta ibilgailu espazialen zatiak	6.436	9.139	1,0	42,0

(p)Behinbehineko datuak

Data 2023ko Martxoaren 16a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

BIZKAIA. Esportazioak 2023ko urtarrilean

Bizkaiko lurralde historikotik eginiko esportazioek % 15,6 egin dute gora. Hamar partida nagusietatik, esportatzeko ahalegin horretan honako hauek parte hartu dute gehien: “*Petrolioaren olio finduak*” (146,8 milioi esportatu, nahiz eta urte arteko % 3,2ko atzerapena izan), “*Kautxuzko pneumatiko berriak*” (69,5 milioi esportatu), “*Automobilentzako zati eta osagarriak*” (69,5 milioi esportatu) eta “*Animalien edo landareen koipeak eta olioak, erabilera tekniko industrialetara bideratuak*” (51,5 milioi esportatu), besteak beste.

Bizkaiko hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Urtarrila 2023

	2022	2023	2023 (%)	2023/2022 (%)
ESPORTAZIOAK GUZTIRA	900.339	1.041.069	100,0	15,6
Petrolioaren olio finduak	151.657	146.791	14,1	-3,2
Kautxuzko pneumatiko berriak	62.159	69.546	6,7	11,9
Automobilentzako zati eta osagarriak	54.110	69.518	6,7	28,5
Erabilera tekniko industrialetarako koipeak eta olioak (animalia- edo landare-)	35.887	51.503	4,9	43,5
Altzairu herdoilgaitzezko barra eta profilak	21.339	33.493	3,2	57,0
Arrain izoztua xerratu gabe	0	26.978	2,6	-
Aduana-tarifen berariaz jasota ez dauden merkantziak	21.829	25.172	2,4	15,3
Transformadore elektrikoak, bihurgailu estatikoak eta erreaktantzia-bobina	13.764	24.362	2,3	77,0
Biodiesela eta bere nahasketak, petrolio edo mineral bituminoso oliorik gabe edo pisan % 70etik beherako edukiarekin	0	23.886	2,3	-
Gainerako altzairu aleatuen barrak eta profilak eta zultzeko barra hutsak	13.169	22.858	2,2	73,6

(p)Behinbehineko datuak

Data 2023ko Martxoaren 16a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

GIPUZKOA. Esportazioak 2023ko urtarrilean

Gipuzkoako esportazioek % 24,1 egin dute gora, eta, haien partida nagusien artean, honako hauen igoera nabarmentzen da: “Automotorrak, trenbideetarako eta tranbia autopropulstsatueterako”, guztira 36,3 milioi esportatu; “Ibilgailuen zati eta osagarriak” (% 19,6ko hazkuntza eta 71 milioi esportatu); “Burdina edo altzairuzko manufakturak” (% 200,6 eta 20,4 milioi), eta “Igogailuak, eskailera mekanikoak, garraiatzaileak, etab.” (urte arteko % 199,2ko hazkuntza eta 18,2 milioi).

Gipuzkoako hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Urtarrila 2023

	2022	2023	2023 (%)	2023/2022 (%)
ESPORTAZIOAK GUZTIRA	604.588	750.316	100,0	24,1
Automobilentzako zati eta osagarriak	59.411	71.085	9,5	19,6
Automotorrak, trenbideetarako eta tranbia autopropulstsatueterako	0	36.263	4,8	-
Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak	52.426	35.412	4,7	-32,5
Txorrotetarako artikulak, balbulak eta antzekoak tutuetarako	32.575	22.599	3,0	-30,6
Burdina edo altzairuzko gainerako manufakturak	6.781	20.380	2,7	200,6
Hariak, isolatutako eroale elektrikoko kableak eta zuntz optikoko kableak	18.392	18.426	2,5	0,2
Igogailuak, eskailera mekanikoak, garraiagailuak, etab.	6.069	18.162	2,4	199,2
Metal arruntezko giltzarapo, sarraila, morroilo eta giltzak	14.946	16.419	2,2	9,9
Ontziak eta paketatzeko aparatuak garbitzeko, betetzeko, ixteko, etiketatzeko makinak	11.077	15.395	2,1	39,0
Burdinbide eta antzekoetarako ibilgailuen parteak	12.044	14.627	1,9	21,4


(p)Behinbehineko datuak

Data 2023ko Martxoaren 16a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Euskal AEko kanpo-merkataritzaren bilakaera

Milioi Euro



Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika (KAMEE)

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62